

7/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO URRIAREN 10EAN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2016ko urriaren 10ean goizeko bederatzia direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ez Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakari zapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Bakarne Olano Manzano, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO PLEGUEN ONESPENA.

Anoetan “**Etxez etxeko laguntza**” zerbitzua kontratatzeko egin den espedientea ikusi ondoren.

2016ko urriaren 5ean ospaturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen diktamina ikusi ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak eginiko txostenak ikusi ondoren.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- Anoetako Udalaren Etxez Etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea, kontratua arautuko duten baldintza ekonomiko administratibo berezien plegua eta baldintza teknikoaren plegua eta gainerako dokumentazioarekin batera.

Bigarrena.- Kontratuaren lehen urtean, arreta emateko ordu arrunta 18,87 eurotako (BEZ barne) eta igande/jaiegunetan 22,66 eurotako (BEZ barne) gastua onestea. Bigarren ekitaldirako, aurrekontuetan partida nahikoa jasotzeko konpromezua hartzea.

Hirugarrena.- Aipaturiko zerbitzua kontratatu ahal izateko prozedura ireki bidezko lehiaketa zabaltzea.

Laugarrena.- Espedientea urgente bezala deklaratzeko.

Bostgarrena.- Aipaturiko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Anoetako web orrian argitaratzea.

Eta beste aztergairik ezean, Alkateak amaitutzat eman du bilkura, goizeko bederatziak eta bost direnean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.